


EHUKO GIZARTE ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN FAKULTATEKO ONDOKO TITULAZIOETARAKO ONARPEN PROZEDURA IKASKETAK HASITA DITUZTEN IKASLEENTZAT (2021-2022 IKASTURTEA)

- Kazetaritzako Gradua
- Ikusentzunezko Komunikazioko Gradua
- Publizitateko eta Harreman Publikoetako Gradua
- Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoko Gradua
- Soziologiako Gradua
- Ikusentzunezko Komunikazioko eta Kazetaritzako Gradu Bikoitza
- Kazetaritzako eta Publizitateko eta Harreman Publikoetako Gradu Bikoitza
- Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoko eta Soziologiako Gradu Bikoitza

1. **Arautegi orokorraren esparrua.** Unibertsitate ikasketak hasita dituzten ikasleen sarbidea 2021-2022ko ikasturterako [Graduko eta Lehenengo eta Bigarren Zikloko Ikasketen 2021-2022 ikasturteko Gestiorako Arautegiko](#) 7. artikuluan arautzen da.
2. **EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko araubide espezifikoa Graduen arteko eta Graduen eta Gradu Bikoitzen arteko leku aldaketak arautzeko (2021-2022 ikasturterako).** Fakultateko Batzarreko Batzorde Iraunkorrek 2021eko urtarrilaren 29an onartua.


2.1. Gradu Bikoitzetik Gradura



Baldintzak:

- Gradu bikoitzeko lekualdaketa guztiak emango zaizkio hura osatzen duten bi titulazioetako edozeini.


2.2. Gradutik Gradu Bikoitzera



Baldintzak:

- Lehen mailako irakasgai guztiak gaindituta izatea.
- Bost plaza Gradu Bikoitza bakoitzean (gehi bakanteak) eta espedientearen notaren arabera esleituko dira.


2.3. Gradutik Gradura



Irizpideak:

- Lehen mailako irakasgai guztiak gaindituta izatea.
- Espedientearen batzbestekoa gutxienez 6,5 izatea.
- Helmuga den graduko hautazko irakasgai guztiak jatorrizko graduko derrigorrezko irakasgaiekin baliozkotu ahal izango dira beti ere irakasgai komunak edo baliozkogarriak ez badira.


2.4. Gradu Bikoitzetik Gradu Bikoitzera



Irizpideak:

- Lehen mailako irakasgai guztiak gaindituta izatea.

2.5. Jakintza adar ezberdinetako Graduen artean



Irizpideak:

- Lehen mailako irakasgai guztiak gaindituta izatea.
- Helmuga den titulazioan gutxienez 60 kreditu baliozkogarriak izatea.